# ChatGPTri egin diezaiokezun galderen gidoia




*Programa hau "Donostia/San Sebastián. Identitatea eta Berrikuntza Merkataritza Komunitate Ireki baterako" (ACT-010000-2021-74), Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan gauzatua, Europar Batasuna-Next Generation EU erakundeak eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak finantzatua dago.*


DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

donostiasustapena fomentosansebastián

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU

GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana

## Jarraian, ChatGPTri hainbat helbururekin egin diezazkiokezun galderen adibideak aurkituko dituzu.

**Nola funtzionatzen dute prestatu ditugun gidoi hauek?**

- **Aukeratu ChatGPTri eskatu nahi diozun funtzioa edo helburua**
- **Kopiatu eta itsatsi prestatu dugun testua, eta egokitu zure kasu zehatzera urdinez eta [] artean datorren zatia**
- **Kopiatu ChatGPTk eskaintzen dizun emaitza eta berrikusi zure estilora eta marka-irudira egokitzeko. Gogoratu ez dela gomendagarria ChatGPTk eskaintzen dizun erantzuna bere horretan erabiltzea**

# Instagrameko argitalpen baterako galderak

Jardun copywriter aditu baten moduan eta egin testu bat Instagrameko argitalpen baterako [adierazi zein den zure negozioa]-entzat, post bat egin nahi duena [adierazi zer izango den argitalpena] buruz, erabili [adierazi erabili beharreko lengoaia mota], [zehaztu testuaren gutxi gorabeherako luzera] eta [adierazi garrantzitsuak izan daitezkeen beste datu batzuk, emotikono edo hashtagen erabilera adibidez].

Jardun copywriter aditu baten moduan eta egin testu bat Instagrameko argitalpen baterako [adierazi zein den zure negozioa]-entzat, post bat egin nahi duena [adierazi argitalpena zer nahi duzun] buruz, erabili [adierazi erabili beharreko lengoaia mota], jarraitu AIDA formulari (arreta, interesa, nahia eta ekintza) arreta erakartzeko, eta sartu ekintza-dei erakargarri bat [adieraz ezazu zer lortu nahi duzun erabiltzaileek egitea, adibidez, zure denda fisikoa bisitatzea] lortzeko

# Online dendarako produktuaren deskribapena idazteko galdera

Online dendetarako produktuen deskribapenetan aditua den copywriter baten moduan jokatu. Egin [adierazi zein den produktua] produktuaren deskribapena , konbertsioa izanez helburu. Zentratu edukia honako ikusleengana [adierazi zein den zure helburuko bezero mota], deskribapenean beraiek aipatu gabe. Eta balioan jarri produktuaren ezaugarri hauek [adierazi produktuaren ezaugarri nagusiak]

# Zure negozioaren deskribapena zure webgunean berrikusteko galdera

Ecommerce-ean aditua den copywriter bat bezala joka ezazu. Hobetu dezakezu nire webgunean dudan aurkezpen-testu hau [kopiatu eta itsatsi hemen berrikusi beharreko testua]? Konbentzitzeko testua izan dadila, eta bertan, bereziki, nire alderdi bereizleak nabarmendu daitezela: [adierazi zein diren zure faktore bereizgarri nagusiak]

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
donostiasustapena fomentosansebastián
Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana

## Google-rentzako iragarki bat idazteko galdera

Copywriting-ean aditu moduan, lagun iezadazu Google Ads-en bilaketa-iragarki bat idazten, [adieraz ezazu zure produktua] [adieraz ezazu zure bezero ideala]-i saltzeko honako onurak goraipatuz [adieraz ezazu zure produktuaren 1. onura, adieraz ezazu zure produktuaren 2. onura]

## Zure newsletterrerako izenburu egoki bat aurkitzeko galdera

Copywriter aditu bat bezala jokatu ezazu. Sor dezakezu e-mailetarako izenburuen zerrenda bat [adierazi zure e-mailaren gaia]-ri buruz eta oso izenburu deigarriak izan daitezela irekiera-tasa hobetzeko?

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
donostiasustapena fomentosansebastián
Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana